



# BID-REX Euskadi Informazio beharrak



**Eragileekin egindako Eskualde mailako 1. Tailer Partizipatiboaren  
Ondorioak**

**2017ko otsailaren 6a  
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea**

## **BID-REX EUSKADI: INFORMAZIO BEHARRAK**

### **ZERGATIK HASI PROZESU HAU?**

Erakunde eta ekimen askok, beren ekarpenekin, biodibertsitateari eta ekosistemak mantentzeko zerbitzuen inguruko zientzia informazio eta ezagutzen sorrerari laguntzen diote; informazio hori guztia funtsezkoa da erabakiak hartu, arauak garatu eta etorkizuneko estrategia politikoak zehazteko. Halere, egun ez dago informazio hori guztia bildu, laburbildu eta aztertzeko gai den eta erabakiak hartzea erraztuko lukeen onartutako eta egiaztatutako mekanismorik.

Egoera horri aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza BID-REX Europako proiektuan inplikatu da, **biodibertsitateari eta ekosistemen zerbitzuei buruzko interfaze zientifiko-politiko indartzeko xedearekin, aniztasun biologikoaren babesa eta erabilera jasangarria, gizakion ongizatea eta garapen jasangarria sustatzeko.**

### **PROIEKTUA**

**BID-REX**, Interreg Europe programak finantzatu duen proiektu europar bat da. Bost urteko iraupena duen proiektu bat da (2016ko apirila-2021eko martxoa), ondokoak dira bere helburuak:

**Balio naturala hobeto babestea, Eskualde mailako garapen-politika hobetuz bidez, biodibertsitateari buruzko datuen eta babes-politiken inguruko erabakien arteko lotura sortuz/indartuz.**


Zehazki esanda, biodibertsitateari buruzko informazioaren bilketa eta erabilera erraztu nahi ditu, informazio egokian oinarritutako erabakiak hartzeko prozesuak ahalbidetuz.

Eusko Jaurlaritzak aipatuan parte hartzen du, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren bidez, Europako 6 herrialdeko beste 6 eskualderekin batera:

	ESKUALDEA	KIDEAK
1	KATALUNIA	 Generalitat de Catalunya <b>Departament de Territori i Sostenibilitat</b>
2	EUSKADI	 <b>EUSKO JAURLARITZA</b> <b>GOBIERNO VASCO</b>
3	NORFOLK KONDERRIA (Erresuma Batua)	 <b>Norfolk</b> County Council <b>UEA</b> University of East Anglia
4	MARCHE ESKUALDEA (Italia)	<b>REGIONE MARCHE</b> 
5	LJUBLJANA MARSH (Eslovenia)	 <b>NIB</b> NATIONAL INSTITUTE OF BIOLOGY
6	IPARRALDEKO LAUTADA ZABALEKO ESKUALDEA (Hungaria)	 University of <b>Debrecen</b> Debreceni Egyetem
7	VALONIA (Belgika)	 <b>DGO 3</b>

**Politikak ikasteko prozesu bat da, eskualde mailako garapenerako programen eta politiken gauzatzea hobetzea** makro-helburutzat duten politikak egiteko erantzukizuna duten organismo garrantzitsuen artean egina.

## PROIEKTUAREN HELBURU ZEHATZAK



## ZER LORTU NAHI DA PROIEKTUAREN AMAIERAN?



**Lehentasunak hobetzea** biodibertsitatearen arloari dagokionean, biodibertsitatearen eta ingurumenaren inguruan eskuragarri dauden datuetan oinarrituriko metodoak erabiliz



**Gida bat.** oEuropako natura ondareari babesteko esfortzuei emaniko funtsen eragina handitu ahal izateko biodibertsitateari buruzko datuak nola biltu eta erabili beharko genituzkeen azalduko du



Eskualdeen arteko trukearen ondorioz, inplikaturiko eragile eta kideek biodibertsitatearen inguruko datuak kudeatzeko beren gaitasunak hobetuko dituzte

## TAILERRA

Dokumentu honetan, 2017ko otsailaren 6an Innobasquen egin zen **Eskualdeko 1. Tailer partizipatiboan** eginiko ekarpenak eta hausnarketak jaso dira.

Eskualdeko foro sektorial hauetan biodibertsitatearen datuen bilketan, ekoizpenean eta hedatzean murgilduta dauden funtsezko tokiko eragileek parte hartzen dute (datuak kudeatzeko ardura dutenak, GKE, profesionalak, ikertzaileak, etab.). Foroak elkarren artean ikasteko eta aberasteko abagune bat dira, aipatuentzat eta Eskualdeko Agintarientzat.

Tailerra Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak antolatu du, Innobasquerekin batera, eta ospatuko diren eskualdeko tailerretako lehena izan da. Aipatuetan, **biodibertsitatearen inguruko informazio koherentea, garrantzitsua eta egituratua izateko beharra aztertuko da, natura ingurunea kontserbatzeko politika eraginkorragoak garatu ahal izateko.**


## TAILERRAREN EDUKIAK – DINAMIKAREN KONTZEPTUALIZAZIOA

Tailerraren helburu nagusia zen **informazio beharrak eta datu azpiegiturak identifikatzea eta lehenestea biodibertsitatearen arloan.**


Asmoa zen biodibertsitateari buruzko datuak kudeatzeko egungo prozesuaren inguruan datuak kudeatzeko ardura dutenek zer nolako iritzia duten jakitea, lehen eskutik. Bildutako informazio guzti horri esker, agintariak eta proiektuaren arduradunek erabakiak hartzeko eskualdeko prozesuaren sendotasunak eta ahuleziak definituko dituzte, natura ingurunearen babesaren arloan egiten den datu-kudeaketan oinarrituta.



Tailerrerako dinamikaren xedea zen **“Non gaude?”** galderari erantzutea, gonbidatutako eragile ezberdinen ekarpenekin. Biodibertsitateari buruzko datuen egungo sistemaren identifikazio eta diagnostiko partekatua lortzen saiatu ginen, ondoko dinamika-eskemari jarraiki:



Aipatzekoa da arlo ezberdinetatik etorritako 59 pertsonen (I. ERANSKINA) parte hartu zutela azkenean tailerra, ondoko irudian ikus daitekeenez:



## JARDUNALDI-TAILERREKO EKARPEN NAGUSIAK

Ondoren, iragan otsailaren 6ko tailerrean zehar jasotako ekarpenen laburpen egituratua aurkezten da. Ondorio hauetan oinarrituta, Behin betiko txostena egin eta, horri, Eusko Jaurlaritzak Valonian datozen otsailaren 22an eta 23an egingo den eskualdearteko mintegiak jasoko dituen ekarpenak gehituko zaizkio.

### 1. DINAMIKA.- DIAGNOSTIKOA: NON GAUDE?

Jardunaldiko lehen zatian, dinamika partizipatibo bat garatu zen bertaratuekin, eskualde mailan biodibertsitateari buruzko datuak biltzeko, tratatzeko/kudeatzeko eta argitaratzeko **egungo sistemaren egoera kontzeptualizatzeko**.

Dinamika horretan lorturiko emaitzak egun aktibatuta dauden **prozesuen** definizioan, biltzen diren **datuen tipologian** eta egungo ekosisteman parte hartzen ari direnen **eragiletan** jarri zuen bere arreta.

Parte-hartzaileek, biodibertsitatearen arloan gauzatzen dituzten prozesu-tipologia ezberdinak definitu zituzten:

- 1) **ZERTARAKO ERABILTZEN DITUZTE DATUAK?** Txostenen tipologia (datuen erabileraren xedea);
- 2) **ZER NOLAKO DATUAK ERABILTZEN DITUZTE?** Prozesuak gauzatzeko erabiltzen dituzten datuen tipologia;
- 3) **ZEINEK/ZEINTZUEK ERABILTZEN DITUZTE PROZESU HORIEK?** Aipatuen garapenean eta harreran inplikaturiko eragileen/aktoreen tipologia.




Lorturiko emaitzak ondoko irudian ikus daitezke:

PROZESUAUAK	DATUEN TIPOLOGIA	AKTOREAK/ERAGILEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Txostenak egitea               <ul style="list-style-type: none"> <li>• PTGF</li> <li>• EIA</li> <li>• Ingurune fisikoaren azterketak</li> </ul> </li> <li>• Planak egitea (estrategikoak/kudeaketa)</li> <li>• Ikerketak</li> <li>• Ebaluazioak</li> <li>• Kartografia</li> <li>• Araudia</li> <li>• Erreminta Informatikoen garapena</li> <li>• Irakaskuntza materiala sortzea (sentsibilizazioa)</li> <li>• Dokumentazio komunikatiboa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen mailakoak (berriak eta bereziak)               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Landa-datuak</li> <li>• Adituen datuak</li> <li>• Datu-baseak</li> <li>• Bilketa, boluntarioen eskutik</li> </ul> </li> <li>• Bigarren mailakoak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Internet</li> <li>• GIS</li> <li>• Zerrendatzeak</li> <li>• Banaketa arloak</li> <li>• Aldi baterako segidak</li> <li>• Billografia datuak</li> </ul> </li> <li>• Barnekoak/kanpokoak</li> <li>• Antolatuta/aztertuta</li> <li>• Kartografia datuak</li> <li>• Georeferentziatutako datuak</li> <li>• Araudia</li> <li>• Produktuak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• BD Indizeak</li> <li>• Banaketa mapak</li> <li>• Kartografia</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aholkularitza</li> <li>• Inplikaturiko enpresak</li> </ul> </li> <li>• Herri administrazioak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• EJ</li> <li>• FAK</li> <li>• Tokiko entitateak</li> <li>• Estatu mailakoak</li> </ul> </li> <li>• Hiritarrak               <ul style="list-style-type: none"> <li>• Partikularrak</li> <li>• Antolatuta</li> </ul> </li> <li>• Teknologia Zentroak</li> <li>• Elkarrekin eta GKEk</li> <li>• Landa-teknikoak</li> <li>• Unibertsitateak (ikertzaileak)</li> <li>• Nazioarteko erakundeak               <ul style="list-style-type: none"> <li>- EU-BON - Open Up!</li> <li>- GBIF - LPI</li> <li>- IPBES - Lifewatch</li> </ul> </li> </ul>

Bigarren fase honetan, parte-hartzaileek beren ikerketa/eragin arloetan garatzen dituzten **lan-fluxu erabilienak (estandarizatuak)** jorratu eta zehaztu zituzten; honela, biodibertsitateari buruzko datuen eza edo falta agertzen duten prozesuak barneratuko edo, behintzat, ikusiko liriateke. Alde batetik, Txosten bat egiteko faseak zehaztu ziren eta, bestetik, Plan bat egiteko faseak zehaztu ziren. Azken horren berezitasuna da hiritarren parte-hartzeak paper nahiko garrantzitsua duela, bai diseinua egiteko fasean bai emaitzak bildu eta hauek aztertzeko unean ere. Eta, horrenbestez, Txostenak egiteko gauzatzen diren prozesuekin alderatuz, datuak biltzeko eta kudeatzeko era ezberdin bat eskatzen du. Bi prozesuak, hori bai, datuaren kalitate eta fidagarritasun (intrintsekoa, FFU, sentiberatasuna) handiena bermatzen saiatuz gauzatzen dira beti. Kontzeptu hau behin eta berriz aipatua izan da bertaratuei eskaini zaien eztabaidagunearen barruan.

Ondoren, Txosten zein Plan bat egiteko beharrezkoak diren prozesu-fluxuak grafikoki azaltzen dira; irudia tailerrean zehar osatu zen:



## 2. eta 3. DINAMIKAK: BIODIBERTSITATEARI BURUZKO DATUAK KUDEATZEKO PRAKTIKETAN DAUDEN SENDOTASUNAK ETA AHULEZIAK


Hasierako diagnostikoa egin eta gero, eta abiapuntua ezarri ondoren, parte-hartzaileek biodibertsitateari dagokionean informazioa (datuak) biltzeko eta gordetzeko **eskualdean egun aplikatzen den sistemaren sendotasunak eta ahuleziak** eztabaidatu zituzten, taldeka.

Ariketa hori oso erabilgarria izan zen, ondokoak identifikatzeko:

- alde batetik, “gaps” edo bere beharreko hutsuneak;
- Eta, bestetik, balizko hobetze-mekanismoak edo -erremintak.

Lortutako emaitzak ondoko irudietan daude laburbilduta:

## SISTEMAREN SENDOTASUNAK



## SISTEMAREN SENDOTASUNAK

1. **Euskadi lurralde txikia eta irisgarria da**, non lurraldea osatzen duen geografiaren eta natura ingurunearen ezagutza nahiko sakona dagoen.
2. **Nolanahi ere, datuen eta iturrien aberastasuna azpimarratu beharreko alderdi bat da;**
  - Beharrezko oinarritzko informazioa irisgarria da. Datu globalak eta bananduak dira. Beste arlotarako interesgarriak izan daitezkeen datuak.
  - Lehen mailako datuak jasotzeko sare indartsu bat dago; sare horretan inplikaturiko tokiko eragile ugari dago (enpresak, ezagutza eta ikerketa zentroak, herri administrazioak, elkarteak eta boluntarioak) eta horiei esker, ezagutza sortu eta partekatu egiten da.
3. **Gaitasun eta eskarmentu handiko eragileak**, kalitatezko datuak eta informazioa biltzeko eta sortzeko gogo argia dutenak.
4. **Irisgarritasuna sistemaren zeharkako ezaugarri bat da:** alde batetik, datuen bilketan, kudeaketan eta ekoizpenean inplikaturiko pertsonak profesional irisgarriak direla uste da; eta, bestetik, datuak egiazki irisgarri eta ikusgarri daudela uste dute aditu/analista ezberdinek.
5. **Non hiritarrak inplikatzeko gizarte-sentiberatasun handia dagoen:** hiritarrak datuak/informazioa biltzeko/gordetzeko prozesuen inguruan sentsibilizatzeko eta hauetan inplikatzeko egiazko abagunea dago. "Zientzia hiritarra" delakoa eta bere garapena, aukera-leiho bat dira

lurraldearentzat.

6. **Herri administrazioek beren kezka agertu** dutela eta natura ingurunea babesteko eta kudeatzeko sistemarako baldintza hobekoak ekarriko dituzten ekimenak eta erremintak garatzeko asmoa eta sentiberatasuna agertzen dutela uste dute parte-hartzaileek.
7. Ezin ahaztu ere **informazioaren teknologia berriek** eskaintzen dituzten **erabilera eta aplikagarritasun abagune- eta potentzialitate-aukerak** ere; lurraldean aipatuen erabilera egiteko baldintzak ematen direla uste da.
8. Nabarmendu beharreko beste alderdi bat da **nazio mailako eta nazioarteko lankidetzaren** (batzorde teknikoak, elkarteak, informazio-sareak, etab.) aberastasuna. Aipatuetan parte hartuz ikasi, ezagutzak eta eskarmentuak partekatu eta lortutako arrakastak hedatzen dira.

Parte-hartzaileek aipatu zituzten ahuleziak edo hobetu beharreko alderdiak, aldiz, ondokoak dira:

## SISTEMAREN AHULEZIAK



## SISTEMAREN AHULEZIAK

1. **Faltan daude...**
  - Lehen mailako oinarritzko datuak
  - Eguneratutako datuak (adibidez, Kartografia)
  - Estandarizatutako datuak

- Zenbait talde eta espezieren inguruko datuak
- Gutxi azalduko talde taxonomikoen datuak
- Erregistro historikoak
- Metadatuak

**2. Informazio-sistemek akats errepikariak dituzte, ondokoan ondorioz...**

- Deskribapen metodologiko eskasa
- Informazioa bildu, gorde eta eskuragarri uzteko estandarren falta
- Informazioaren fidagarritasun eskasa (jatorria, iturria)
- Informazio-iturrien arteko bateraezintasuna (datu kontraerriak iturri berberetik)
- Akats metagarriak, fidagarritasun gutxiko datuak erabiltzeagatik
- "Informazio gris" ugariren existentzia
- Bikoiztasunak
- Sarbide mugatua zenbait datura
- Hutsuneak informazioan

**3. Datu orokorren integrazio falta administrazio ezberdinen aldetik**

**4. Koordinazio eta komunikazio falta datuen sortzaile eta kudeatzaile/bitartekarien eta azken erabiltzaileen artean**


**5. Gaikuntza teknikoaren falta**

- Espezialistak falta dira arlo ezberdinetan
- Bitarteko teknikoaren eta giza baliabideen falta (merezi duten aitortza jasotzen ez duten profesionalak)

#### 4. DINAMIKA: KONPONBIDEAK – HOBETZE TRESNAK PLANTEATZEA

Sistemaren egungo egoera kontzeptualizatu eta sendotasunak eta ahuleziak aztertu ondoren, **biodibertsitateari buruzko datuak bildu eta kudeatzeko egun dauden prozesuak hobetzeko ideiak** eskaintzen saiatu ziren. Zenbait gap identifikatu ziren eta konponbide praktikoak eta bideragarriak proposatu ziren. Hauek elkarlanean abiaraziz gero, hobekuntza garrantzitsua lor genezake etorkizuneko informazio-sistamarako, bai eta erabakiak hartzeko prozesuak hobetu ere natura ingurunearen babesari dagokionean.

Jarraian, tailerreko parte-hartzaileek egin zituzten proposamenak deskribatzen dira:



Erakundeen arteko koordinazio eta zeharkakotasun handiagoa eskatzen dute etengabe. Ez bakarrik **Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundi eta tokiko erakunde**en artean; biodibertsitatearen arloko datuen **sortzaile, bitartekari eta azken erabiltzaileen** arteko koordinazio hobeago baten benetako beharra dagoela uste dute ere.

Aipatu erakundeen arteko **koordinazio eta antolakuntza hobe** batek ondokoak ekarriko lituzke, besteak beste;

- ✓ Eskuragarri dauden bitarteko ekonomiko eta teknikoak eta giza baliabideen erabilera eraginkorragoa
- ✓ Epe ertainera/luzera partekatutako estrategia bat ezartzeko erraztasun handiagoa, dirufunts egokiarekin
- ✓ Datuen bilketa eta analisiaren eta azterketen gauzatzearen planifikazio hobeagoa
- ✓ Eguneratzea, jarraipena, fidagarritasuna eta komunikazioa/dibulgazioa sustatuko duten proiektuentzako finantzazioa egoteko aukera

**Eusko Jaurlaritzak koordinatzaile/dinamizatzailearen papera har dezan proposatu da**, bai eta bere jarduketa-markoaren barruan natura ingurunearen kudeaketan eta babesean inplikaturiko beste administrazio guztien lana bildu eta koordina dezan ere.

Atal honetan azpimarratu beharreko beste alderdi bat da **sare-lana sustatzeko** beharra dagoela aipatu dutela parte-hartzaileek; honela eginda, **stakeholderrek** politikak diseinatzeko xedearekin abiatutako erabakiak hartzeko prozesuetan hasiera-hasieratik parte hartzeko aukera izango lukete, etab.



## PROKOLOA DATUAK BILDU ETA ERABILTZEKO GIDA KOMUNA

Etengabe eta aho batez ia, parte-hartzaileek **datuen kalitate ona bermatzeko** beharra nabarmendu zuten. Horrenbestez, datuak bildu, erabili eta partekatzeko **protokolo komun bat** garatzea proposatu da:

- ✓ Irizpideak/metodologiak bateratzea
- ✓ Iragazkiak jartzea (fidagarritasuna)
- ✓ Datuak bildu, gorde eta partekatzeko protokoloak partekatzea
- ✓ Datuen bateragarritasuna eta koherentzia bermatzea eskala ezberdinetan

Protokolo honek bildutako datuen fidagarritasuna (bahetzeak) bermatzeko balio lezake, bai eta beren **estandarizazioa, tratamendua eta koordinazioa** bermatzeko ere. Beren **ikusgarritasuna eta difusioa** susta ditzake ere, mota honetako mekanismoen erabilera ezarriz eta bultzatuz datuak hobeto batu eta estandarizatzeko, horien azken kalitatea hobetzen baita.

Ondokoak hobetuko lituzke horrek:

- ✓ Datuen transferentzia, aipatuak sortu dituztenetik berauek administratzeaz arduratzen direnei;
- ✓ Ekoizleen eta azken erabiltzaileen arteko harremana; honela, datuen bilketa hobeto bidera baitezakete lehenek.



## HEZIKETA

Tailerrean behin eta berriz aipatu den beste gai bat da **datuak sortzen dituzten eragileak** eskuragarri dauden bilketa-erreminten erabileran **hezi beharra dagoela**, datuen transmisio eraginkorrago bat ahalbidetzeko. **Azken erabiltzaileei zuzenduriko heziketa** eskatzen da ere.



## INFORMAZIO-PLATAFORMA/-SISTEMA PARTEKATUA

Plataforma berri bat sortzea edo egun daudenak hobetzea proposatu da. Biodibertsitatearen arloko **“informazio-atarien atariaz”** hitz egin da non Eusko Jaurlaritzak, bere koordinatzailea den heinean, iturri ezberdinetako (Foru Aldundiak, Unibertsitateak, Ikerketa Zentroak, elkarteak, etab.) datuak eskuragarri jarriko lituzkeen.

**Eragile guztiek sorturiko informazioa integratzeko proposamena da;** honela, biodibertsitatearen babesari eta erabilerari jasangarriari buruzko ezagutza-oinarria nabarmenki indartuko lirateke.

Plataforma hori **komunikazio-erreminta boteretsua** izan daitekeela, **biodibertsitatearen arloko jarduketan babes politiko handiagoa** eta **ikusgarritasun eta gizartearen inplikazio handiagoak** berma ditzakela uste da.

**Datuen bilketa eredu holistiko baterantz bideratzeko** modu bat da eta, aldi berean, datuen partekatze antolatua aldeko apustu bat ere.

Horrek, bere aldetik, **adituen sare-lana** susta lezake, **bai eta biodibertsitatearen arloan lan egiten duten aditu-taldeentzako mantentzea eta bultzada** ere, ikusgarritasuna eta zorrotasuna emanaz beren lanari.






**Gailu mugikorak**, aplikazioak, GPS, argazki-bideo eta antzekoak **erabiltzeko beharra** nabarmendu da, **datuen bilketa eta kudeaketa arintzeko**.

Parte-hartzaileen ustez, **potentzial, irisgarritasun eta berehalakotasun handiko erremintak** dira: datu-kantitate handiak sortzen lagundu eta eskuragarri dauden bitarteko xumeak optimizatzea ahalbidetzen dute.

Aldi berean, **gizartea ahalduntzeko** bide eraginkor gisa erabiliak izan daitezke, inplikazio handiagoa sustatuz inguruan duten natura ingurunearen ezagutzan eta hedatzean (zientzia hiritarra).



**Datu berrerabilgarriak, erreproduzigarriak eta egiaztagarriak.** Datuak era antolatuan partekatzea.

Gardentasun gehiago lortzeko xedearekin, eta informazioa guztien onerako erabilia izan dadin, “atxikia” egon ez dadin, **dagoeneko eginda dauden txostenak argitaratzea** eta “**informazio grisa**” delakoa digitalizatzea funtsezkoa izango litzateke. Horrek, halere, **dibulgazio- eta sentsibilizazio-lan** handia eskatzen du.

**Estandarizazio-erakundeekin eta metadatuak argitaratzeko horiekin** (GBIF, TDWG/TBTS, EU-BON, EUDAT) batera lan egitea proposatu da.

## 5. DINAMIKA: JARDUNBIDE EGOKIAK IDENTIFIKATZEA

Tailerreko azken jardueraren xedea ondokoa izan zen: parte-hartzaileek **jardunbide egokiak identifika zitezzen natura ingurunearen babesaren arloko datuen tratamenduari eta/edo kudeaketari dagokionean**. Nazio mailako edo nazioarteko jardunbide egokiak izan zitezkeen, ez bakarrik eskualde mailakoak.

Identifikazio-ariketa honen helburua zen Eusko Jaurlaritzako taldeari proiektuaren baitan erreferentzia izan litezkeen ideia eta jardunbide horien lehen bahetze eta identifikazio bat egitea ahalbidetzea, tokiko eragileekin batera.

Jarraian, parte-hartzaileen proposamenak jasoz identifikatu ziren jardunbide egokien zerrenda agertzen da, horietako bakoitzaren deskribapen txiki batekin:

**OHARRA:** Jarraian agertzen den informazio guztia parte-hartzaileek egin zituzten ekarpenetatik atera da zuzenean. Zenbaitetan, egungo jardunbide egokien inguruko proposamenak baino, natura ingurunea datuen kudeaketa eraginkorraren bidez hobeto babesteko politikak garatzeko xedearekin etorkizunean aplikatu zitezkeen balizko jardunbideen proposamenak dira.

Jardunbidearen izenburua	<b>BEST PRACTICE GUIDE FOR DATA GAP ANALYSIS FOR BIODIVERSITY STAKEHOLDERS</b>
Jardunbidearen deskribapena	<i>GBIF-ek sortu duen jardunbide egokien gida. Biodibertsitateari buruzko datuen gabeziak (DGA) aztertzeko prozesuetan sakontzen du; horrenbestez, datuak mobilizatzeko jarduerak lehenesten lagun dezake.</i>  <i>Egileak: Arturo H. Ariño (Tailerrera bertaratua), Vishwas Chavan eta Javier Otegui</i>
<b>Zergatik proposatu da jardunbide hau?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Datu normalizatuentzako elkargune aproposa eskaintzen du</li> <li>✓ Datuen irisgarritasuna</li> <li>✓ Datuen fidagarritasuna hobetzen da</li> <li>✓ Heziketa</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>NAZIOARTEKO LAN SAREAK</b>
Jardunbidearen deskribapena	<b>Ondoko nazioarteko saretan parte hartzea:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <b>Geoparke Nazionalen Sare Globala (GGN)</b></li> <li>○ <b>BID-REX proiektua</b></li> </ul>
<b>Zergatik proposatu da jardunbide hau?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ideiak, esperientziak eta ezagutza partekatzeko erabilgarria (kasu arrakastatsuak)</li> <li>✓ Proiektu komunetan batzeko balio du, produktu eta praktika guztien kalitate-estandarrik igotzeko</li> <li>✓ Baliabideen eraginkortasuna hobetzen du</li> <li>✓ Berezko ondare geologikoa balioan jartzen du</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>ESKUALDE MAILAKO LAN SAREAK</b>
Jardunbidearen deskribapena	<b>Sare-lana sustatzea:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ <b>Udalsarea 21</b></li> <li>○ <b>Eskualde mailako tailer partizipatiboa</b></li> </ul>
<b>Zergatik proposatu da jardunbide hau?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Jardunaldi tekniko sortzaileak</li> <li>✓ Udalek eta eragile ezberdinek landu beharko dituzten gaiak koordinatzea, Eusko Jaurlaritzako Estrategiarekin batuz</li> <li>✓ Tesietan eta, orokorrean, unibertsitatean ikertu beharreko gaiak koordinatzea, Eusko Jaurlaritzako Estrategiarekin batuz</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>MUGI 21</b>
Jardunbidearen deskribapena	<b>Tokiko 21 Agenda zenbateraino bete den neurtzeko adierazle-aplikazio informatikoa. Halaber, udalerrietako Tokiko Ekintza Planen eta Tokiko Jasangarritasuneko Adierazleen inguruko informazio guztia hartzen du barne.</b>
<b>Zergatik proposatu da jardunbide hau?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Definitutako eta bateratutako metodologia</li> <li>✓ Tokiko 21 Agendaren prozesuen kudeaketa eta jarraipena errazten du</li> <li>✓ Adierazleen bilketa estandarizatua</li> <li>✓ Tokiko mailan erabilgarria, lurralde eta EAE mailako informazioa sartzeari ahalbidetzen du</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>AZERTU programa</b>
Jardunbidearen deskribapena	<i>Ingurumen Heziketako programa, zeinak, ingurunearen ezagutzaren eta partaidetzaren sustatzearen bidez, ingurumena babesteko beharraz kontzientziatu nahi duen. Bi kanpaina uztartzen ditu: AZTERKOSTA eta Ibaialde.</i>
<b>Zergatik proposatu da jardunbide hau?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Informazioa sortzeak ondasun sozial eta partekatu gisa duen garrantziaren inguruko sentsibilizazioa</li> <li>✓ Hiritarrek natura inguruneaz duten ezagutza areagotzen du, ekintza bultzatuz (dakienak, babesten du)</li> <li>✓ Datu zientifikoek historial egokia</li> <li>✓ Hiritarrek datuen bilketan parte hartzen dute, parte-hartzea sustatzen du</li> <li>✓ Laguntzaile/boluntario asko ditu datuak biltzeko; honela, kostuak murrizten dira</li> <li>✓ Heziketa, dibulgazioa eta sentsibilizazioa hiritarrentzat</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>URA – Uraren Euskal Agentzia</b>
Jardunbidearen deskribapena	<i>Agentziaren eta datu-hornitzaileen arteko koordinazioa</i>
<b>Zergatik proposatu da jardunbide hau?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Langile teknikoek inplikazioa</li> <li>✓ Koordinazio egokia Agentziaren eta datu-hornitzaileen artean</li> <li>✓ Europako legediarekin egunean daude</li> <li>✓ Berezko izaera juridikoa (Agentzia) izateak datuen kudeaketa errazten du</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>LURRALDEA DATUAK SORTZEKO ITURRI GISA BABESTEA (KATALUNIA)</b>
Jardunbidearen deskribapena	<i>“Jabeak” inplikatzeko dituzten natura baliabideen babesean</i>
<b>Zergatik proposatu da jardunbide hau?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ekimen berritzailea eta partizipatiboa</li> <li>✓ Publiko-pribatua lankidetzaren eredu</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>GEOEUSKADI</b>
Jardunbidearen deskribapena	<i>Euskadiko Espazioko Datuen Azpiegitura (EDA)</i>
Zergatik proposatu da jardunbide hau?	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Argitaratutako informazioa eskuratzeko eta erabiltzeko erraztasuna</li> <li>✓ Iturri eta organismo ezberdinetako informazioa biltzen du</li> <li>✓ Datuak, edozein erabiltzailerentzako eskuragarri</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>EUROPAKO INGURUMEN AGENTZIA</b>
Jardunbidearen deskribapena	<i>Bere helburua da ingurumenaren inguruko informazio sendoa eta independentea eskaintzea. Informazio-iturri nagusia da ingurumen politikak garatu, onartu, gauzatu eta ebaluatzeko ardura dutenentzat, bai eta hiritarrentzat ere.</i>
Zergatik proposatu da jardunbide hau?	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ingurumen egoerari buruzko Adierazleak garatzea, nazio mailako datuak integratuz</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>ZIENTZIA HIRITARREKO EKIMENAK</b>
Jardunbidearen deskribapena	<i>Hiritarren zientzia ekimenak balio handiko bitarteko bat dira eguneratutako eta kalitatezko datuak bildu eta,aldi berean, hiritarrak biodibertsitatea babesteko jarduketetan inplikatzeko.</i>
Zergatik proposatu da jardunbide hau?	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Datuen transmisio sinplea</li> <li>✓ Hiritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzea</li> <li>✓ Komunitatearen sorkuntza eta inplikazioa</li> <li>✓ Eusko Jaurlaritzak plataforma horien bidez lorturiko datuak koordinatzeko ardura du</li> <li>✓ Tokiko datuak lortzeko botere handia, banakoen inplikazioaren bidez</li> </ul>	

Jardunbidearen izenburua	<b>EUSKADIKO BIODIBERTSITATEAREN EBALUAZIOA</b>
Jardunbidearen deskribapena	<i>Egungo egoera, presioak eta etorkizuneko agertokiak zehazten dira, eskuragarri dagoen informazioaren arabera</i>
<b>Zergatik proposatu da jardunbide hau?</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Eskuragarri dagoen informazioaren ikuspegi holistikoa lortzen da</li> <li>✓ Biodibertsitatearen egoera eta ekosistemetako zerbitzuak hobetzeko politikak proposatzen dira</li> <li>✓ Informazio-hutsuneak identifikatzen dira</li> </ul>	

Jarraian, nahiz eta aipatuak izan garatuak izan ez ziren jardunbide egoki ezberdinak zerrendatzen dira; informazio-xedeetarako aipatzen dira soilik:

- **Biodibertsitateari buruzko Informazio Sistema (Ornitho)**
- **CIRCA**
- **Eusko Jaurlaritzako erroldetako txostenak**
- **UICN espezieen zerrenda gorria eta berdea**
- **E-bird**
- **Natura Zentron integrazioa beren lurraldean (Peñas Negras)**
- **Sailak ezagutzaren sorkuntza bultzatzeko duen diru-laguntza programa**
- **Biodiversity Action Plan (Erresuma Batua)**

## IIRUDIAK – TAILER PARTIZIPATIBOA





✓ Bertaratuek tailerrari eman dioten balorazioa



## Eragileen aintzatespenaren inguruko galdetegiaren emaitzak

Jardunaldian zehar, bertaratuek galdetegi bat jaso zuten. Horren helburua zen **eragileek datuak biltzeko eta sortzeko egiten duten lanak** -boluntarioa eta altrurista zenbaitetan- jasotzen duen aintzatespenari buruz duten iritzia zuzenean jakitea zen.

Eragileek aintzatespen hori egia bihurtzeko eragileek mekanismo egokiak aplikatu duten ala ez jakin nahi zuen Eusko Jaurlaritzak, bai eta **hobe zitezkeen alderdiak** ere.

### GALDETEGIAREN EREDUA

Eragileekiko aitormena · Reconocimiento a los agentes		
Eragilea askok sekulako lana egiten dute datuen bilketa eta sorkuntzan, musutruk. Datu horiek partekatzerakoan... Muchos agentes realizan un inmenso trabajo de recopilación y producción de datos de manera voluntaria y altruista. A la hora de compartir esos datos...		
	Ongi egindakoak Aspectos positivos	Hobetzekoak / Aintzat hartzekoak A mejorar / A tener en cuenta
Eusko Jaurlaritzak lan hori behar bezala aitortzen edo baloratzen du? Zergatik? ¿El Gobierno Vasco reconoce y valora ese trabajo suficientemente?		
Nola jokatu beharko luke gai honetan Jaurlaritzak? ¿Qué más podría hacer el Gobierno Vasco?		
Besterik erantsi nahi duzu? ¿Quieres añadir algo más?		

**37 galdetegi** bete ziren eta erantzunak ondoko atalean bildu eta laburbildu dira.

**Eusko Jaurlaritzak datuak biltzeko eta sortzeko egiten duzuen lana aintzat hartu eta baloratzen duela uste duzu, aipatu lana zenbaitetan boluntarioa eta altruista dela kontuan hartuz?**

- **Proiektuen kontratazioaren eta ikertalde ezberdinen finantzazioaren bidez egiten den aintzatespena positiboki baloratu da.** Arrisku bat dago halere: aurrekontu-krisiko egoeretan, aintzatespena egiteko era goikoa bakarra balitz, beste mekanismo batzuk aktibatu beharko lirateke.
- Eragile batzuen lan boluntarioari esker **Administrazioak** bere bitarteko (ekonomiko, giza eta teknologikoak) eta/edo denbora gabeziaren ondorioz **bete ezin dituen ezagutza-hutsune batzuk bete** direla onartu da.
- Lankidetzeta horiei esker eragileek, kontratu txikien bidez, datuak biltzeko eta jasotzeko **beren zenbait lan argitaratzeko bitarteko bat** lortzen dutela aipatu da ere; eta hori pozazko gauza bat da.
- Halere, datu horiek ezagutza-plataforman argitaratzeak **EZ** dio osperik ematen eragileari. **Prestigioa eman behar zaio plataformari eta eragileak motibatu**, ekimenean inplika daitezten.
- Eragileek diote ere aintzatespena emateko beste modu bat dela **kalitate-estandarrak aplikatzea Eusko Jaurlaritzarekin partekatzen diren berrikuspen eta fiskalizazioan**. Kalitatea bermatzeko agindua jaso nahi dute; ez bakarrik dirua jaso, "pozik" egon daitezten.
- Datuak tratatzerakoan trebetasun-maila ezberdinak daudela nabarmendu dute, bai eta zenbait iturri besteak baino fidagarriagoak direla ere (taxonomoen ustez, "kalitatezko" datuak sortzeko eragile nagusiak dira). Ondorioz, **ordainik gabe edo elkarte boluntarioetatik partekatzen diren datuak bahe zientifiko/tekniko handiago batetik pasatzea eskatu dute.**
- **Eusko Jaurlaritzak aintzatespen-lan hori egiteko dituen bitarteko ekonomiko, giza eta teknikoek eskasia** behin eta berriz aipatu den gai bat da.

## Zer gehiago egin lezake Eusko Jaurlaritzak? Hobekuntza proposamenak

- “Aintzatespena” baino, ikertaldean ezagutza hobetzea.
- **Aintzatespen hori balioan jarri eta datuak sortzen dituzten eragileen lanari ikusgarritasuna eta egonkortasuna (epe luzerako konpromisoa)** emango dioten erreminta zahar eta berriekekin lanean jarraitzea.
  - Ziurtagiri eta/edo aintzatespenak ematea
  - Argitalpenetan erabilitako datuen egileak eta jatorria-iturria identifikatzea (aipatzea, aipatzea eta aipatzea...).
  - Eragileentzako jardunbide egokiak identifikatzea
  - Argitalpen erakargarriagotan parte-hartzera gonbidatzea: mapak, txostenak...
  - Aplikatutako ikerketa babestea
  - “Argitaratu gabeko txostenak” zabaltzea
- **Erakundeen arteko koordinazioa gidatzea eta hobetzea:** Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinen artean (Ingurumena eta Hezkuntza, adibidez), Administrazio ezberdinen artean (FFAA eta tokiko agintariak) eta erakunde publiko eta pribatuaren artean.
- Ezagutza zientifikoaren dibulgazioa bultzatzea hiritarren artean (**Zientzia Hiritarra**), natura ingurunea gizartera gerturatuz. Ekimen honen ondorioz sortu diren plataformak eta erremintak zabaltzea.
- **Plataformari buruzko hobekuntza proposamenak:**
  - Ikusgarritasun handiagoa. Nola eta non parteka daitezke Biodibertsitateari buruzko datuak?
  - Datuen irisgarritasun egokia bermatzea
  - Datuak eguneratuta mantentzen saiatzea
  - Erabiltzaile-mailako heziketa
- **Bere jarduerak sare sozialen bidez zabaltzea:** arlo honetan lan egiten duten profesionalen LinkedIn taldeko proposamena.
- **Topaketen (tailer hau bezalaxe) dinamizazioarekin jarraitzea:** metodoa partekatzea, arreta eskainiz heziketari eta etengabeko ikaskuntzari.
- **Abiarazi diren lan-taldeak bultzatzea** (fauna, flora, etab.). Talde horiek eraginkorrak izan eta hobeto koordinatuta egon daitezkeen, interesgarria izango litzateke parte-hartzaileek eragile-tipologiaren arabera identifikatzea (ekoizlea, erabiltzailea, etab.).
- **Europako organismoekin koordinatzea,** tokiko mailaraino iritsiko diren protokoloak estandarizatzeko.

### III. ERANSKINA – TAILERRA SARE SOZIALETAN

**Innobasque** @Innobasque Seguir

**elh Elhuyar** @Elhuyar Seguir

[@IngurumenEJGV](#) Europako Bid-Rex proiektuaren lan-saioa dinamizatzen [@Innobasque](#) ren egoztan



RETWEETS: 5    ME GUSTA: 6

1:56 - 8 feb. 2017

1    5    6

**Innobasque** @Innobasque Seguir

"De los datos sobre biodiversidad a las decisiones" [@IngurumenEJGV](#) Europako Bid-Rex proiektuaren lan-saioa [@Innobasque](#)-n



RETWEETS: 2    ME GUSTA: 1

2:58 - 6 feb. 2017

2    1

**Lucia Peña**  
@LuciaSEOEuskadi

Seguir

Temas muy interesantes en la jornada "De los datos sobre biodiversidad a las decisiones"  
[@SEO\\_BirdLife](#)



RETWEETS 3 ME GUSTA 5

5:41 - 6 feb. 2017

Medioambiente y a Innobasque

3 5

**Alburen**  
@AlburenSL

Seguir

Hoy estamos en [@Innobasque](#) De los datos sobre biodiversidad a las decisiones  
[@Gob\\_eus](#)

RETWEET 1 ME GUSTA 3

0:41 - 6 feb. 2017

1 3

**Geoparkea**  
@geoparkea

Seguir

Today we are participating in a data-driven decisions workshop within the frame of [@interregbidrex](#) project, at [@Innobasque](#) facilities



RETWEETS 4 ME GUSTA 4

3:35 - 6 feb. 2017

**Lucia Peña**  
@LuciaSEOEuskadi

Seguir

Participando en "De los datos sobre biodiversidad a las decisiones" con [@Innobasque](#) y [@IngurumenEJGV](#)



RETWEETS 9 ME GUSTA 8

0:47 - 6 feb. 2017

## IV. ERANSKINA – BERTARATUEK TAILERRARI EMAN DIOTEN BALORAZIOA

Euskal Herriko 1. Tailerrari amaiera emateko, beste galdetegi bat banatu zen. Beren xedea zen parte-hartzaileek Tailerraren antolakuntzaz, garatzeaz eta edukiaz zuten asebetetze-maila jakitea.


Emaitzak banandu dira, ikasi eta etorkizuneko tailerrak hobetu ahal izateko.

### GALDETEGIAREN EREDUA

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA HOJA DE VALORACIÓN DE LA REUNIÓN				
BALORAZIOA VALORACIÓN				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA EL HORARIO Y LA DURACIÓN DE LA REUNIÓN HAN SIDO ADECUADOS				
GAIAK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT ME HA GUSTADO LA MANERA DE ABORDAR LOS TEMAS				
GIROA ATSEGINA IZAN DA EL AMBIENTE DE TRABAJO HA SIDO AGRADABLE				
BILERAN EGON DIREN ERAGILEEN ANIZTASUNA GUSTATU ZAIT ME HA GUSTADO LA PLURALIDAD DE AGENTES QUE HAN PARTICIPADO EN LA REUNIÓN				
EGINDAKO LANA BALIAGARRIA IZAN DA / EMAITZAREKIN GUSTURA GERATU NAIZ EL TRABAJO REALIZADO ME HA SIDO VÁLIDO / ME HE QUEDADO SATISFECHA/O CON EL RESULTADO				
EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK: COMENTARIOS QUE QUIERAS REALIZAR:				


45 galdetegi bete ziren eta erantzunak ondoko atalean bildu eta laburbildu dira.

### ➤ BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA




Galdetegia bete zuten ia pertsona guztiek (% 96) jardunaldiaren ordutegia eta iraupena egokiak izan zirela erantzun zuten (*Erantzunak Ez – 0 pertsona / Eskasa – Bi pertsona / Ona – 18 pertsona / Oso ona – 25 pertsona*).

➤ GAIK JORRATZEKO MODUA GUSTUKOA IZAN DUT




Galdetegia bete zuten pertsona guztien % 87ak gaiak jorratzeko modua egokia izan zela uste dute (*Erantzunak: Ez – 0 pertsona / Eskasa – 6 pertsona / Ona – 21 pertsona / Oso ona – 18 pertsona*).

➤ LAN EGITEKO GIROA ATSEGINA IZAN DA




Galdetgia bete duten pertsona guztiek (% 100) jardunaldia gustukoa izan dute eta lan egiteko giroa atsegina izan da (*Erantzunak: Ez – 0 / Eskasa - 0 / Ona – 14 pertsona / Oso ona – 31 pertsona*).

➤ **BILERAN PARTE HARTU DUTEN ERAGILEEN ANIZTASUNA GUSTUKOA IZAN DUT**



Galdetgia bete duten ia guztiek (% 96) jardunaldiak eragile anitzen partaidetza bermatu duela uste dute (*Erantzunak: Ez – Pertsona 1 / Eskasa – Pertsona 1 / Ona – 22 pertsona / Oso ona – 21 pertsona*).

➤ **EGINDAKO LANA ERABILGARRIA SUERTATU ZAIT / POZIK NAGO EMAITZAREKIN**



Galdetgia bete dutenen % 18ak tailerrean egindako lana eskasa izan dela uste du; % 82a, aldiz, pozik agertu da emaitzarekin (*Erantzunak: Ez – 0 pertsona / Eskasa – 8 pertsona / Ona – 29 pertsona / Oso ona – 8 pertsona*).



**Etorkizuneko ekitaldi-tailerretarako** aintzat hartu beharreko iradokizunak:

- **Astelehen goizak** saihestea tailer bat egiteko.
- **Kokalekua ez da oso irisgarria.**
- Parte-hartzaileen zerrenda ematea bertaratuei.
- Iraupena: gehiago sakondu nahi bada, denbora gehiago eskaini behar zaio.
- **Eragileen aniztasun handiagoa:** beste arloetakoak (hezkuntza, informatika), bai eta datu horiek beste xede batzuetarako (natura inguruneaz haraindi) erabil ditzaketen eragileak ere.
- Dinamika:
  - Abiaburu-informazioaren gabezia testuingurua ezarri eta zehazten laguntzeko.
  - Aurretik eginiko online galdetegien emaitzetatik abiatzea parte-hartzea bideratzeko.